

## **EUSKAL HERRIKO IRAKASKUNTZAREN INGURUAN BESTE BEHIN**

Politikariek irakaskuntza sisteman irizpide merkantilistak eta paktu politikoak eginez ari diren une honek, ondorio kezkarri eta garrantzizkoak ekar litzaizkioke sistema honi.

Herri ekimenari esker ikastolak sortzean hasi ginen Euskal Herriko irakaskuntza bertokotzen eta bertoko errealitate linguistiko eta sozialetara hurbiltzen, izan ere, Espainiako eredu berbera baitzegoen artean, hots ikastolak sortu aurretik.

Euskararen irakaskuntza eta beste zenbait modu bertokotu beharrean atzerrira begira ari gara, kanpokoak eredutzat hartu nahiez behin eta berriro, langilegoa arautzean ere berdin egiten delarik.

Badirudi, zenbaiten buruetan karreraren beraren gainetik funtzionaria izatea lortzea dagoela eta funtzionari izatea lortzen ez dutenak edo nahi ez dutenak irakasle kaxkarragotzat hartuak edo direla. Funtzionari izan edo ez, irakaskuntzan zintzo saiatzen den irakasle orok mereziko luke errespetoa eta lan baldintza zein soldata egokia izatea.

Nork ziurta dezake funtzionari bidetik soilik antola daitekeela Euskal Herriko irakaskuntza? Edo eta antolamendu mota hori dela egokiena?

Bidenabar esan nahi nuke, gainera, langileak eta moduak berdintzetik ez datorrela derrigorrez hobekuntzarik; kontrolatzeko errazagoa izan litekeen arren, aukera murriztago eta pobregoa bihur liteke.

Aipaturiko irakaskuntza paktuak, bestalde, Euskal Herriko lurraldetasuna Hegoaldera soilik mugatzen du.

Ikastolek, ostera, Iparraldea eta Nafarroa ere kontutan izan ohi dituzte, era betera edo bestera. Erreferentzia hori galtzea ere ekar lezake ikastolen desagerketak.

Guzti hau horrela, ez dut uste, orain, ikastolei eman nahi zaien irtenbide azkarra eta presaka egina euskararen normalkuntzarako egokia izan daitekeenik eta aurrera egin beharrean, zoritxarrez, atzera pausoa bilakatuko zaigulakoan nago. Behar bezala baloratzen ez dakigun herri ekimenetik sortua galdu egingo dugula pentsatzeak biziki kezkatzen nau. Eta, hori, eskola publikoa euskaldundu nahian, bertako irakasle izanik, ahalegin bizitan lanean ari naizen arren.

### **Hezkuntza erreforma**

Euskarak erreforman bere kokagune egokia lortu arte nahiko kezka eta buruhauste jasan behar izango dugun arren, eskola porrota hor dago begibistan eta zerbait egin beharra dago zalantzarik gabe, bide berriak eta modu berriak bilatuz.

Erreformaren oinarriak ganoraz finkatzeko, eskola komunitate osoari eman behar zaio eskuhartzeko tokia eta zenbait oinarritzko alderdi zaindu, besteak beste, honako hauek:

- Proiektu berriaren zergatia denen artean aztertu eta onartu.
- Ikastetxeko gizarte-inguruari eta eskariei egokitu.
- Proiektua garatzeko behar diren baldintzak zehaztu
- Beharrezko bilaka daitekeen prestakuntza praktikotekoa antolatu.
- Faseak edo denboraren zehaztapenak jarri.
- Kanpoko laguntzak ikastetxean txertatu.

-Proiektua ebaluatzeko bideak jarri.

Curriculum osatzen duten elementu bakoitzak ikastetxe bakoitzaren gizarte-inguruaren arabera zehaztutakoa izan behar du, horrela, tokian tokiko inguru soziokultural eta hizkuntz eskariei erantzun ahal izango baitio proiektuak.

### **Erreformatik planteiatzen dituen hezkuntzarako gidabideak**

#### *A) Haur hezkuntza*

Nola irakatsi:

- hizkuntzaren tratamendua
- Aniztasuna
- Ikuspegi globalizatzaila
- Gurasoekiko harremanak
- Espazio eta denboraren antolamendua
- Afektibitatea eta harreman soziala
- Evaluaketarako gidabideak

Zer irakatsi:

- Etaparen eta eremun helburu orokorrak
- Hizkuntz tratamendurako bideak

Noiz irakatsi:

Ziklo bakoitzerako, edukinen hautapen eta sekuentziaziorako orientabideak

Zer, nola eta noiz ebaluatu:

- Ikaskuntzen ebaluaketa
- Kontzeptua eta helburua
- Gurasoekiko harremanak
- Ikastetxearen eta irakaskuntzaren ebaluaketa

#### *B) Lehen hezkuntza*

Zer irakatsi:

- Etaparen eta arloen helburu orokorrak
- Edukinak, arlo bakoitzeko bloke proposamena
- Hizkuntz tratamendurako bideak

Noiz irakatsi:

-Arlo bakoitzerako hautapen irizpideak

Nola irakatsi:

-Arloko irizpide metodologikoak

-Prozeduren ikaskuntza

-Ikaskuntza eta taldeko elkarrekintza

-Ikuspegi globalizatailea

-Aniztasunaren tratamendua

-Antolaketa

Zer, nola eta noiz ebaluatu

-Kontzeptua eta helburua

-Ikastetxearen eta irakaskuntzaren ebaluaketa

-Ikaskuntzaren ebaluaketa, Ebaluaketa irizpideak

*C) Derrigorrezko bigarren bezkuntza*

Zer irakatsi:

-Etaparen eta arloen helburu orokorrak

-Edukin kontzeptualak, prozedurazkoak eta jarrazkoak,

arlo bakoitzeko bloke proposamena

-Hizkuntza tratamendurako bideak

Noiz irakatsi:

-Edukinen hautapena eta sekuentziazioa

-Arlo bakoitzeko hautapen irizpideak

Nola irakatsi:

-Arloko irizpide metodologikoak

-Aniztasunaren tratamendua

-Orientabidea eta tutoretza

-Antolaketa eta irakaskuntza lana

Zer, nola eta noiz ebaluatu:

-Kontzeptua eta helburua

-Ikastetxearen eta irakaskuntzaren ebaluaketa

-Ikaskuntzaren ebaluaketa, ebaluaketa irizpideak

**Euskararen tratamenduari dagokionez, hizkuntzaren tratamendurako erreformak planteiatzen duena**

**A) Haur bezkuntzan - Hizkuntza**

Haurra eta ingurunea finkatzeko baliagarri diren lengoaiak guztiak barne hartzen ditu. Hitzezko zein gorputz, plastika, musika et matematika lengoaiak ari gara. Hauen bitartez sentimendu eta bizipenak ezagutu, adierazi eta errepresentatu ahal izango dituzte, guzti hori jolas eta sorkuntza ingurune baten barruan.

**B) Lehen bezkuntzan - Hizkuntza**

Helburu nagusia: Ikasle goaren komunikazio gaitasuna areagotzea, hizkuntzaren erabilpena eta erabilpenari buruzko gogoeta.

Erabilpen eremuetatik datozenak:

- Hizkuntza pertsonen arteko harremanetan
- Hizkuntza komunikabideetan
- Hizkuntza literaturan
- Hizkuntza ikaskuntzan

**C) Derrigorrezko bigarren bezkuntzan**

Helburu nagusia: Ikasle goaren komunikazio gaitasuna areagotzea, erbilpena eta erabilpenaren inguruko gogoeta.

Erabilpen eremuetatik datozenak:

- Hizkuntzen arteko harremanak, hiztunak eta hizkuntzak
- Hizkuntza literaturan
- Hizkuntza gizarte komunikabideetan
- Hizkuntza erakundeekiko harremanetan
- Hizkuntza ikaskuntzan

Gainetik eta modu orokorrean azaldu dudana honetan, orduak igaro genitzake zehazkiro eta puntuz puntu aritzen.

Erreforma finkatzeko, oraindik denbora pasatuko denez, euskalduntzeari dagokion alderdi bat edo beste ikutuz amaituko dut oraingo saiotoxo hau.

Guzti hau behar bezala aurrera atera ahal izateko, zenbait baldintza eta faktore kontuan hartu beharra dago. Besteak beste, batzuk aipatzekotan, honako hauek ezinbestekotzat hartzen ditut:

-Administrazioak laguntza zuzena eskaini behar du, ez hasieran soilik, proiektuak martxan ipini eta jarraipena ziurtatzeko.

-Gizabaliabide eta materialen hornikuntza; aholkua eta kontrola ere bai zenbait kasutan.

- Bestetik, irakaslegoaren jarrera ezinbestekoa da zerbait aldatzekotan. Izan ere, hobetzeko gogorik ez badago erreformak porrot egingo du eta funtsean ezer gutxi aldatuko da.

Jarrera aldaketak, denok dakigun bezala ez diren arren egun batetik bestera lortzen direnak, bide serioak erabiliz, politiki-poliki sinestertzeko bideetan abiatuz eta guztiok - administrazio-irakasle, guraso-irakasle-ikasle, udal,...- elkar langintzan arituz lor daitezke. Hezkuntza denon ardura denez, eta gaur egun dagoen eskola porrota gutxitzeko, zalantzarik ez dago irakaskuntza erakargarriagoa eta esanguratsuagoa egitera beharturik gaudela.

Euskalduntzeari dagokionez, zer esan? Pena bada ere administraziotik ez dela egin eredu linguistikoei dagokinez nahikoa. Zergatik? Nik uste dut Hezkuntza erreforma bat egiteko orduan, emaitzik onenak ateratzera eramango gaituen bideak hartzen direla; beste arloetan badirudi horrela jokatu dela, gainera, horretarako irakasleago animatzen eta behartzen delarik.

Euskarak lortu izan dituen emaitzen arabera eredu birplanteaketa bat itxaroten bagenuen ere, ez da horrela gertatu eta eredu linguistikoaren marko zaharra hartu da. Jakinik, gainera, euskalduntzeko eredurik emankorrena D eredia dela. Egin diren esperientziak ebaluatuz, frogatua geratu da eredurik orekatuena D eredia dela, euskara zein gaztelera ikasteko,

zonalde erdeldunetan ere bera bilakatu delarik gomendagarriena.

Ikerketak ta esperientzien ebaluazioak eginak badira ere, ez genuen, egia esan, horren beharizan handirik behar hori gauza nabaria bait da.

Zonalde erdaldunetan eta besteetan erdara erruz entzuten dute kanpoan, horregatik egoerak orekatzeko, kanpoak eskaintzen ez duena eskolak eskaintzea oso egokia bilakatzen dela.

Guri ere gauza bera gertatu zitzaigun txikitan, baina aldrebes. Kanpoan edo herrian euskara besterik ez genuen entzuten eta eskolan, berriz, gazteleraz soilik. Eskolak lortu zuen gu elebidun bihurtzea, alegia, guk gazteleraz ikastea; euskara hutsa bizi genuenon kasuan, bestalde, orduko komunikabideek zuten eragina hutsaren hurrengoa zelarik.

Administrazioak eredurik emankor bezala aholkatu eta egituratu beharko lukeena D eredia izango litzateke zalantzarik gabe. Gaur egun daukagun marko estu honetan egin litekeen bakarra, metodologian zerbait hobetzea dela bakarrik esango nuke puntu honetan.

Gutxi ez bada ere, euskararen normalkuntzarako eta gizarte integrazioarako gutxiegi dela esango nuke.

*Pilare Baraiazarra*